# Akta

**UDAL OSOKO BILKURA** SESION PLENARIA MUNICIPAL

**TOKIA / LUGAR:** Udaletxea
**EGUNA / FECHA:** 2018/07/23
**HASIERA / INICIO:** 19:00
**AMAIERA/FINAL:** 20:00

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**ALKATEA/EL ALCALDE:**
Aitor Aretxaga Telletxea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:**
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Naiara Ruiz Badiola (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)
Rodolfo Lartitegi Azpitarte (BIT)

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Víctor-Martín Amparan Álvarez

**IZAERA / NATURALEZA:** Ohikoa / Ordinaria
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** Lehena / Primera

Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkate jauna eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udaleko Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Saioan ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.

Alkate Jaunak aginduta hasiera eman zitzaion bilerari zinegotziei nahikoa denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, honako akordioetara iritsita:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

**1.- Aurreko saioko akta.-**

Osoko Bilkurak aho batez adostu zuen 2018ko ekainaren 27ko saioko akta onartzea.

**1.º.- Acta de la sesión anterior.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 27 de junio de 2018.

**2.- Alkatetza Dekretuak.-**

Ondorengo alkatetza-dekretuen berri eman zitzaion Udalaren Osoko Bilkurari:

- 25/18, zeinaren bitartez 2017ko 61 espedienteko hirigintzako lizentziak eman diren, bai eta edukiontzi bat jartzeko lizentzia ere.
- 26/18, zeinaren bitartez 36 eta 38 espedienteetako hirigintzako lizentziak eman diren.
- 27/18, zeinaren bitartez ezkontzak baimentzeko ahalmena eskuordetu den.
- 28/18, zeinaren bitartez alkatearen funtzioak alkateordeari eskuordetu zaizkion lehenaren oporraldiak iraun bitartean.

**2.º.- Decretos de la Alcaldía.-**

El Ayuntamiento Pleno fue informado de los siguientes decretos de la alcaldía:

- N.º 25/18, por el que se conceden las licencias urbanísticas del expediente 61 del 2017, y la colocación de un contenedor.
- N.º 26/18, por el que se conceden las licencias urbanísticas de los expedientes 36 y 38 del 2018.
- N.º 27/18, por el que se delega la facultad de autorizar matrimonios.
- N.º 28/18, por el que se delegan las funciones del Alcalde durante sus vacaciones a la Teniente de Alcalde.

**3.- 2018rako ordainsarien igoera.-**

Uztailaren 3ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 6/2018 Legea, eta zehazki horren 18.2 artikulua, ikusita, Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) bidalitako honako gomendio hauek onestea:

a) Aipatutako 18.2 artikuluko lehenengo paragrafoari jarraikiz, 2018ko urtarrilaren 1ean legeak onartutako gehienezko portzentajean igoko dira langileen ordainsariak, hau da, indarrean dauden 2017ko abenduaren 31koei dagokien % 1,5.

b) Aipatutako 18.2 artikuluko bigarren eta hirugarren paragrafoei dagokienez, ordainsariaren gehikuntzaren % 0,25 zainpetuko da, hartara, Ministroen Kontseiluak gehikuntza

**3.º.- Incrementos retributivos para 2018.-**

Vista la aprobación de la Ley 6/2018, de 3 de julio, de Presupuestos Generales del Estado de 2018, en concreto su artículo 18.2, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aceptar las siguientes recomendaciones remitidas por la Asociación Municipio Vascos - EUDEL sobre los incrementos retributivos para 2018:

a) En relación con el párrafo primero del referido artículo 18.2, incrementar, con efectos de 1 de enero de 2018, las retribuciones del personal el máximo legal permitido, esto es, un 1,5% respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2017.

b) En relación con los párrafos segundo y tercero del referido art. 18. 2, consignar un 0,25% de incremento salarial

hori onetsiko balu, erabaki hori jakitera emandakoan langileei ahal bezain laster ordaintzeko.
c) Aipatutako 18.2 artikuluaren laugarren paragrafoari dagokionez, langileei % 0,3 gehiago igoko zaie soldata-masa. Zenbateko hori langileen artean banatu ahal izateko, artikulu horretan eta aplikatu beharreko beste edozeinetan jasotako lege-formulak aplikatuko dira.

añadido, con efectos de 1 de julio de 2018, a fin de proceder a su abono al personal tan pronto como sea comunicado el correspondiente acuerdo de Consejo de Ministros que apruebe, en su caso, la aplicación del incremento.
c) En relación con el párrafo cuarto del referido art. 18.2, proceder a autorizar un incremento adicional del 0,3% de la masa salarial, que se distribuirá entre el personal mediante las fórmulas legales que se refieren en el mismo artículo o cualesquiera otras que resultaran de aplicación.

**4.- 2018ko urtarrileko euriteek Altamira-Tribiz bidean eragindako kalteak konpontzeko obrak.-**

Ikusi da 2018ko urtarrileko euriteek Altamira-Tribiz bidean eragindako kalteak konpontzeko obren kontrataziorako izapidetutako espedientea, 183.530,40 euro gehi BEZaren 38.541,38 euroko aurrekontuarekin eta egikaritze-epearekin. Sektore Publikoko Kontratueiburuzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 116. eta 117. artikuluekin bat etorriz, hiru hilabeteko egikaritze-epearekin. Sektore Publikoko Kontratueiburuzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 116. eta 117. artikuluekin bat etorriz, Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki zuen:
LEHENENGOA.- Onestea 2018ko urtarrileko euriteek Altamira-Tribiz bidean eragindako kalteak konpontzeko obren kontrataziorako espedientea nahiz kontratua arautu behar duten Administrazio Klausula Berezien Pleguak. Izapidetze-prozedura irekia eta sinplifikatua izango da.
BIGARRENA.- Baimentzea kontratu honek dakarren gastua, indarreko aurrekontuaren 1531.60109 aurrekontu-aplikazioaren kargura.
HIRUGARRENA.- Lizitazio publikoa kontratatzailearen profilean iragartzea.

**4.º.- Obras de reparación de los daños producidos por las lluvias de enero de 2018 en el camino Altamira-Tribiz.-**

Visto el expediente tramitado para la contratación de las obras de Reparación de los daños producidos por las lluvias de enero de 2018 en el camino Altamira-Tribiz, con un presupuesto de 183.530,40 €, más 38.541,38 € de IVA y un plazo de ejecución de tres meses, y de conformidad con lo establecido en los artículos 116 y 117 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó:
PRIMERO.- Aprobar el expediente para la contratación de las obras de Reparación de los daños producidos por las lluvias de enero de 2018 en el camino Altamira-Tribiz, así como los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares que han de regir el contrato. El procedimiento de tramitación será abierto simplificado.
SEGUNDO.- Autorizar el gasto correspondiente que comporta el presente contrato, con cargo a la aplicación presupuestaria 1531.60109 del vigente presupuesto.
TERCERO.- Anunciar la licitación pública en el perfil de contratante.

**5.- Maite Sagarna Ugalderen eskaera.-**

Udalbatzak, aho batez, Maite Sagarna Ugalde udal langilearen eskaera onartu zuen, abuztuan zehar egunean hiru orduko lanaldi murrizketaz gozatzeko, eta azken Tokiko Gobernu Batzarrean baimendu zitzaion norbere gauzetarako baimen ordaingabeari uko egiteko. Aipatutako uko egite hori udaleko langileen oporrak eta baimenak aldi baterako betetzeko arazoen ondorioz gertatu da.
Arrazoi beragatik, Udalbatzak aho batez onartu zuen uztaileko, abuztuko eta iraileko hilabeteetan zehar 09:00etatik 14:00etarako jendaurreko arreta zerbitzua ezartzea.

**5.º.- Solicitud de Maite Sagarna Ugalde.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, accedió a la solicitud de la empleada municipal Maite Sagarna Ugalde para disfrutar, durante el mes de agosto, de una reducción de jornada de tres horas diarias, renunciando al permiso no retribuido para asuntos propios que se le había autorizado en la última Junta de Gobierno Local. Dicha renuncia se ha producido ante los problemas surgidos para cubrir temporalmente las vacaciones y permisos del personal administrativo del Ayuntamiento.
Por este mismo motivo, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó establecer un horario de atención al

público durante los meses de julio agosto y septiembre, de 9 a 14 horas.

**6.º.- Cursos del área de cultura.-**

**6.º.- Cursos del área de cultura.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó abrir el plazo para la inscripción de los siguientes cursos:

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó abrir el plazo para la inscripción de los siguientes cursos:

| IZENA NOMBRE | ESKULANAK MANUALIDADES | JOSKETA COSTURA | MANTEN. GIM | GIM.3.ADINA GIM. 3.º EDAD | YOGILATES | EUSKERA | M. HIPOPRESIBOA | TENIS INGLESEZ | SKATE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EGUNAK DIAS | ASTELEHENA ASTEAZKENA OSTIRALA LUNES MIERCOLES VIERNES | OSTIRALA VIERNES | ASTEARTEA OSTEGUNA MARTES JUEVES | ASTEARTEA OSTEGUNA MARTES JUEVES | ASTELEHENA ASTEAZKENA LUNES MIERCOLES | ASTEARTEA OSTIRALEA MARTES VIERNES | ASTEARTEA OSTEGUNA MARTES JUEVES | ASTEAZKENA MIERCOLES | ASTEAZKENA MIERCOLES |
| ORDUTEGI A HORARIO | 17:30-20:30 | 17-20 | 9:15-10:15 19:30-20:30 | 17-18 | 18:30-19:30 | 9:30-11:30 | 18:30-19:30 | 18-19 | 17-18 |
| TOKIA LUGAR | ALTAMIRAKO KULTUR ETXEA CASA DE CULTURA DE ALTAMIRA | GIZARTE ETXEA | AINGERUBIDE | AINGERUBIDE | AINGERUBIDE | ALTAMIRAKO KULTUR ETXEA CASA DE CULTURA DE ALTAMIRA | AINGERUBIDE | PISTAS DE TENIS DE ALTAMIRA | PISTAS DE TENIS DE ALTAMIRA |

Elorrieta jaunak kritikatu zuen ikastaro batzuk enpresaren edo horiek emateko ardura duen pertsonaren interesagatik sortuak diruditela, udalerriaren interesengatik bainoago.
Etxebarria andreak erantzun zion hori ez zela hala, enpresa batek hainbat ekintza proposatzen zituenean udala zelako zein ikastaro eman aukeratzen zuena.
Elorrieta jaunak eta Larrabaster andreak azpimarratu zuten helduentzako ikastaroetan euskararen erabileraren gaia jorratzen hasi beharko litzatekeela, adingabekoenekin egiten den bezala; horretarako, euskara teknikariak esku hartzea proposatu zuten.

El Sr. Elorrieta criticó que algunos cursos parecen surgidos más por el interés de la empresa o persona encargada de impartirlos que del propio interés municipal.
La Sra. Etxebarria le respondió que eso no era así, ya que, cuando una empresa ofrecía varias actividades, era el Ayuntamiento el que elegía qué cursos dar.
El Sr. Elorrieta y la Sra. Larrabaster incidieron en que habría que ir introduciendo el tema de la utilización del euskera en los cursos de adultos, al igual que se hace en los de los menores; para ello propusieron la intervención de la técnica de euskera.

**7. Memoria historikoari buruzko beka**

Alkate jaunak jakinarazi zuen Eusko Ikaskuntzatik udalari eskatzen ari direla memoria historikoaren inguruko hitzarmena dela eta idatzitako lanari onespena eman ala ez erabakitzeko. Aurkeztutako lanaren balorazio akademikoaren kopia bat ere eman zien mahaikideei.
Elorrieta jaunak bere desadostasuna adierazi zuen bekadunak gaztelaniazko testuagatik ordain bat jasotzeari dagokionez, berak lana hizkuntza horretan egin zuelako eta ondoren itzuli duelako euskarara. Lanari emandako puntuaketa altua ere kritikatu zuen, baita, esate baterako, iturrien erabilpena positiboki baloratu izana ere, bertako iturriak erabili baditu ere horiek ez dituelako aipatu. Lana emateko justifikatu gabeko atzerapena ere kritikatu zuen (urte eta erdikoa).

**7.º.- Beca sobre memoria histórica.-**

El Sr. Alcalde informó que, desde Eusko Ikaskuntza se está instando al Ayuntamiento para que se adopte una decisión respecto de dar el visto bueno o no al trabajo redactado en ejecución del Convenio sobre memoria histórica. Incluso facilitó a los concejales una copia de la valoración académica realizada sobre el trabajo presentado.
El Sr. Elorrieta manifestó su discrepancia con la posibilidad de que el becario perciba un importe por el texto en castellano cuando él elaboró el trabajo en ese idioma y posteriormente lo ha traducido al euskera. También criticó la alta puntuación dada al trabajo y que, por ejemplo, se valorase positivamente el empleo de fuentes, cuando, a pesar de haber utilizado fuentes locales, no las ha citado. También criticó el retraso injustificado (de año y medio) en la

Ruiz andreak adierazi zuen berak ez duela bere burua egindako lana analizatzeko gai ikusten, baina egia dela atzerapena gehiegizkoa izan dela.
Azkenik, Udalbatzak, aldeko hiru botorekin eta lau abstentziorekin, erabaki zuen hitzarmena betetzat jotzea eta Eusko Ikaskuntzari onespena ematea Xabier Herrero bekadunari emandako laguntzaren dirua ordaindu diezaion.

entrega del trabajo.
La Sra. Ruiz manifestó que ella no se considera capaz de analizar el trabajo realizado, pero que sí es cierto que se ha retrasado de manera excesiva.
Finalmente, el Ayuntamiento Pleno, por tres votos a favor y cuatro abstenciones, acordó considerar cumplido el convenio e informar favorablemente a Eusko Ikaskuntza para que haga efectivo al becario Xabier Herrero el importe de la ayuda concedida.

**8.- Galde-eskeak.-**

Lartitegi jaunak kexa adierazi zuen informazio batzordeetako debateetan zinegotziek egiten dituzten komentarioak kanpora iristeagatik, eta gainera desitxuratuta iristeagatik. Udaletxetik kanpo berak udaletxeko batzar itxietan egindako baieztapenak aipatu izan dizkioten (hitzez hitzeko esaldiak) hainbat kasu konkretu aipatu zituen. Era honetako filtrazioengatik mehatxatuta sentitu izan den kasuren bat ere aipatu zuen. Zehazki, Busturia Kirol Taldearekin eta Itxas-adarreko instalazioekin lotutako polemikari egin zion erreferentzia. Guzti horrek haren irudia kaltetu du herritarren sektore batzuen aurrean.
Alkate jaunak esan zion ez bera eta ez bere taldea ez direla komentario horien errudunak. Konkretuki, BKTrekin izandako elkarrizketetan beti gaitzetsi izan dira bertako presidenteak Lartitegi jaunaren aurka egindako komentarioak, eta argi utzi da udaleko erabakiak bateratuak direla, udal osoarenak, eta eurak ere izan direla egoera honen biktima. Gai honetan inplikatutako BKTko pertsonekin gaia argitzeko prest agertu zen.
Elorrieta jaunak esan zuen larria iruditzen zitzaiola zinegotziek informazio batzordeetan adierazitako iritziak filtratzea.

**8.º.- Ruegos y preguntas.-**

El Sr. Lartitegi manifestó su queja de que los comentarios que realizan los concejales en los debates de las Comisiones Informativas trasciendan al exterior y además lo sean de manera tergiversada. Aludió a varios casos concretos en los que fuera del Ayuntamiento se le han sacado a relucir afirmaciones (frases textuales) hechas por él en reuniones a puerta cerrada en el Ayuntamiento. Incluso mencionó algún caso en el que se ha sentido amenazado por este tipo de filtraciones. Se refirió en concreto a la polémica con el Busturia Kirol Talde y las instalaciones de Itxas-adar. Todo ello le ha provocado un daño en su imagen ante sectores de la población.
El Sr. Alcalde le dijo que ni él ni su grupo son responsables de esos comentarios. En concreto, en las conversaciones con el BKT siempre han rechazado los comentarios efectuados por su presidente contra el Sr. Lartitegi, aclarando que las decisiones municipales eran conjuntas, de todo el Ayuntamiento, y que ellos también han sido víctimas de esa situación. Se manifestó dispuesto para aclarar este tema con las personas implicadas del BKT.
El Sr. Elorrieta dijo que le parecía grave que se filtrasen las opiniones manifestadas por los concejales en las comisiones informativas.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea/El Alcalde

Aitor Aretxaga Telletxea

Idazkaria/El Secretario,

Víctor-Martín Amparan Álvarez